


15. Arau orokorrak:

- a) Telesaila sortzeko egitasmoa egileak berak aurkeztu beharko du, bakarka egindako lana bada, eta lankidetzan egindako lana bada, egilekide guztiek batera aurkeztu beharko dute egitasmoa.
- b) Partaideak eskaera aurkeztean aditzera ematen du dokumentu honetan ezarritako baldintza eta oinarriak onartzen dituela eta baimena ematen diola SGAE Fundazioari eta Laborategiari buruz argitaratzen duten informazioan aukeratutakoen datu profesionalak edota irudiak jartzeko.
- c) Argitalpenean erakundearen logotipoak agertuko dira.
- d) Partaideak plagioaren edo indarrean dagoen legedia urratzearen ondoriozko erantzukizunetik kanpo uzten du SGAE Fundazioa, Laborategia egiteko garaian parte-hartzailearen batek arau-hausteren bat egiten baldin badu.
- e) SGAE Fundazioak ez du, Lehiaketa honetan, Laborategia egin eta garatzeari dagokionez, dokumentu honetan zehazten ez den erantzukizun zuzen nahiz bigarren mailakorik.
- f) Aukeratutako egitasmoaren egileak edo egilekideek eta SGAE Fundazioak lankidetzarako hitzarmen espezifiko bat sinatuko dute; hor sartuko dira, derrigorrez, dokumentu honetan ezarritako oinarriak eta jarraian aipatuko dugun informazioa:
- Alderdi bakoitzaren eskubideak eta betebeharrak.
 - Laborategiaren hasiera- eta amaiera-datak.
 - Azkeneko testua aurkezteko data: 2017ko ekainaren 23a.
 - Emandako diru-laguntzaren zenbatekoa.
 - Ordaintzeko modua.
 - Laborategiaren jarraipena (txostena, ebaluazioa eta amaierako testua).
- g) Dokumentu honi Espainiako legedia aplikatu behar zaio eta alderdiak Madrilgo Auzitegien jurisdikzioaren menpe egongo dira; uko egin beharko diote dagokien eskumenari.



Telesailak Sortzeko IV. Laborategia
fundación **sgae** fundazioa


MATERIALAK BIDALTZEKO
HELBIDEA
audiovisuales@fundacionsgae.org

INFORMAZIOA
Interesdun orok honako helbide hauetan
kontsulta dezake oinarriei buruzko
informazio gehiago:
audiovisuales@fundacionsgae.org
informacion@fundacionsgae.org

www.fundacionsgae.org
www.sgae.es
Tel. 91 503 68 18 / 32 / 35

sgae taldearen laguntzarekin

Telesailak Sortzeko IV. Laborategia
fundación **sgae** fundazioa



Telesailen idazketa sustatzeko eta oro har, gidoilarien sektoreari bultzada emateko, SGAE Fundazioak honako laborategi honetan parte hartuko duten pertsonak hautatzeko lehiaketa deitu du

Telesailak Sortzeko IV. Laborategia

fundación **sgae** fundazioa

GINARRIAK

1. Espainian bizi diren SGAEko bazkide guztiek parte hartu ahal izango dute. Aurkeztutako proiektua lankidetzan egin bada, egilekide guztiak, salbuespenik gabe, SGAEko bazkideak izan beharko dira eta Espainian eduki beharko dute bizilekua.
2. SGAE Fundazioak 2016/2017rako deitutako laborategi bakarrean soilik parte hartu ahal izango dute egile edo egilekideek. SGAE Fundazioko aurreko laborategiren batean parte hartu duten egile edo egilekideek ezin izango dute aurtengo laborategian parte hartu.
3. Bazkideek telesail bat egiteko egitasmo bakar bat aurkeztu beharko dute, egile bakarrekoa edo beste egile batzuekin batera lankidetzan egin, gaztelaniaz edo Estatu espainiarreko beste edozein hizkuntza koofizialetan idatzia. Egitasmoan, honako hauek agertu beharko dira, gutxienez 10 orrialdetan: telesailaren deskribapena, formatua, unibertsoa, argumentua eta pertsonaiak. Gainera, telesaileko kapitulu pilotuaren gidoi-tratamendua aurkeztu beharko da beste 10 orrialdetan. Lankidetzan aurkeztzen diren egitasmoetako egile-kopurua, ezin izango da hiru (3) pertsona baino gehiagokoa izan.
4. Proiektuarekin batera, honako dokumentu hauek aurkeztu behar dira, **PDF formatuan** eta **hiru fitxategi** desberdinetan:
 - a) Lan-egitasmoa (3. puntuan deskribatutakoaren arabera), eta egilearen edo egilekideen *curriculum vitae* laburra.
 - b) Aurretiko sorkuntzen adibideren bat, sorkuntza literarioena, zein ikus-entzunezkoena (ikus-entzunezkoak badira, ikusi ahal izateko web-orrialderako esteka).
 - c) Posta-helbidea, helbide elektronikoa, harremanetarako telefonoa, eskaneatutako NANA eta bazkide-zenbakia.

5. Eskatutako dokumentazio guztia posta elektronikoki bidez bidali beharko da audiovisuales@fundacionsgae.org helbidera, **2016ko azaroaren 10etik abenduaren 5era** bitartean (biak barne), honako izen honekin: "(Egilearen edo egilekideen izena) – SGAE Fundazioa. Telesailak sortzeko IV. laborategia".

6. SGAE Fundazioak aukeratuko du pertsona egokiena, ikus-entzunezko egile ezaguna eta SGAEko bazkidea, Laborategiko zuzendari izateko. Horren egitekoa izango da sorkuntza-prozesu guztian zehar aukeratutako egile-taldea koordinatzea eta orientatzea.

7. SGAE Fundazioak eskatutako baldintzak bete dituzten aurkeztutako egitasmoen artean sei aukeratuko ditu, honako prozedura honen bidez:

- a) Epaimahai batek aukeratuko ditu; SGAE Fundazioak izendatutako sektoreko bost eta hiru profesional artean egongo dira epaimahaian. Epaimahaiko lehendakaria **Telesailak Sortzeko IV. Laborategiko** zuzendaria izango da.
- b) Aipatutako egitasmoak aukeratzeaz gain, epaimahaia ordezkoen zerrenda bat egingo du hiru egitasmorekin, baina ez da argitaratuko; aukeratutakoak ordeztuko dituzte haiek uko eginez gero.
- c) Epaimahaiaren erabakia 2017ko urtarrilean argitaratuko da.

8. **SGAE Fundazioa Telesailak Sortzeko IV. Laborategia** zuzendariak, eta gutxienez, hautatutako sei egitasmoetatik egitasmo bakoitzeko egile batek osatuko dute. Laborategia osatzen duten egile edo egilekide bakoitzak telesail baten kapitulu pilotua idatzi beharko dute aurreikusitako epean garatu beharko du, zuzendariak gainbegiratu eta lagunduta.

9. Prozesuan zehar, aukeratutako egile edota egilekideen artean lan kolektiborako bilerak egingo dira, kapitulu pilotu bakoitzaren garapena elkarri erakusteko, betiere, laborategiko Zuzendariaren ikuskaritzarekin.

10. Laborategiko bilerak Madrilen egingo dira, aldian-aldian, 2017ko urtarrilean hasi eta urte bereko ekaina arte. Nahitaezkoa izango da, gutxienez, proiektu bakoitzeko egile bat egotea erakundeak ezarritako egun eta orduetan.

11. Bakarka egindako egitasmo baten egilea Madrilen biziko ez balitz, SGAE Fundazioa arduratuko litzateke bilera horiek eragindako lekualdatze, ostatu-hartze eta mantenuaren gastuez. Dena den, kontzeptu hauek eragindako gastuak ordaintzeko SGAE Fundazioak daukan aurrekontuko partida, berdina izango da, hautatzen diren 6 egitasmoen egile eta egilekide guztientzako, egitasmo bakoitzaren egile-kopurua kontuan hartu gabe. Zenbatekoa egitasmo bakoitzeko egile baten gastuak ordaintzeko kalkulatu da. Horri dagokionez, lankidetzan egindako egitasmoen egilekideak ados jarri beharko dira aurrez, gastuok zein egileri ordainduko zaizkion erabakitzeko. Datu hori, dagokion dokumentuan agertuko da, oinarri hauen 4. puntuko c) letraren fitxategian.

12. SGAE Fundazioak 5.500 € ordainduko dizkio (zergak barne) aukeratutako egitasmo bakoitzari. Egilea bakarra bada, zenbatekoa honela ordainduko da: 2.750 € Laborategiaren hasieran eta 2.750 € amaitzean (azkeneko testua entregatu ostean). Bi ordainketak egin aurretik, hitzarmena sinatu beharko da eta indarrean dagoen legediak eskatzen dituen baldintza guztiak betetzen dituen kobrantza-dokumentua (zuzenbideak legez onartutakoa) aurkeztu beharko da. Aurkeztutako egitasmoa lankidetzan egin baldin bada, 5.500 €-ko zenbatekoa egilekideen artean bananduko da zati berdinetan, eta bakoitzari dagokion zatia bi zatitan emango zaio, aurreko paragrafoko irizpidea jarraituz (zati bat laborategiaren hasieran eta bestea laborategiaren amaieran, azkeneko testua eta kobrantza-dokumentua aurkeztu ostean).

13. Egileek edota egilekideek konpromisoa hartzen dute etorkizuneko lagatze-hitzarmenetan aipatzeko egitasmoa **Telesailak sortzeko IV. Laborategiko** dela, hortik atera daitezkeen materialetan.

14. Datu pertsonalak babestea: egileek edota egilekideek emandako datuak SGAE Fundazioaren ardurapean dagoen fitxategi batean sartuko dira; kasu guztietan aplikatuko da Datu Pertsonalak Babesteko Legea eta horrekin bat datorren eta indarrean dagoen araudia. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, baliogabetzeko eta horien tratamenduaren aurka egiteko eskubideak erabiltzeko, egileek edota egilekideek honako helbide honetara idatzi beharko dute: SGAE FUNDAZIOA, Bárbara de Braganza, 7. zk., 28004, Madril, zuzendari nagusiarentzako dela jarrita.